

Behean sinatzen duenak: ..... jaun/andrea, NAN zk. .... duena

Aitortzen du:

- a) Onartzen dituela bekaren baldintzak eta eskaeran jasotako informazioa, curriculum vitae eta erantsitako dokumentuak egiazkoak direla eta errealitatearekin bat datozela.
- b) Honez gain, ez duela bete beste eskaera bat Global Training 2024 bekarako; bestela, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eskaerak bikoizteagatik.
- c) Inola ere ez dela jarriko harremanetan harrera-entresarekin, hautapen-prozesutik kanpo geratzeko arriskuarekin.
- d) Lanik edo praktikarik egin ez izana Global Training praktikak egiteko aurkezten den enpresa edo erakundean.
- e) Arduraldi eskusiboa izango duela bekaren berezko jardueretarako, eta ez duela egingo bestelako jardura ordaindurik. Bekak dirauen bitartean, bekadunak uneoro bete beharko ditu erakunde, enpresa eta organismo kolaboratzaileen funtzionamendu-arauak.
- f) Beka normaltasunez garatzea eragozten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea; edo beka onartzeko orduan ez izatea eguneroko bizitzako jarduerak mugatzen dituen patologiarik.
- g) Unibertsitate-tituludunentzako antzeko prestakuntza helburua duen beste edozein laguntza jaso ez izana, baldin eta, laguntza horren bidez, nazioarteko erakunde edo enpresetan 6 hilabetez edo epe luzeagoz praktikak egin badira atzerrian. Bereziki, beka hauetaz baliatzeko bateraezina da beka hauen onuradun izanarekin: Global Training, BEINT, ICEX edo beste autonomia-erkidego batzuenbekak, merkataritza ganberenak, EBko Merkataritza Sustatzeko Erakundeak edo antzeko beste erakunde batzuenak.
- h) Bekadunarena izango da bekaren denboraldi osoan zehar dagokion dokumentazio guztia indarrean eta behar bezala izateko erantzukizuna.
- i) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.
- j) Diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zigor administratiborik edo penalik ez izatea edota horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez izatea, sexua medio diskriminatzeagatik gertatutakoak barne, emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko Seigarren Azken Xedapenean ezarritakoaren arabera".
- k) Dirulaguntzen Erregimena Arazten duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (DEAL) 13. Artikuluan edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoeraren ez dagoela.

.....n, 2024ko .....aren .....(e)an

Sinadura:

#### DATUEN BABESA:

Datuak babesteko egungo araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da inprimaki honen bidez jasotzen diren datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela (helbidea: Ijentea kalea 1, 20003 Donostia), tratamenduaren arduradun gisa jokatuz. Informazioa Donostia Sustapena S.A.k kudeatuko du, tratamenduaren eragile gisa jokatuz. Helburua izango da zure erantzukizunpeko adierazpena izapidetzea eta kudeatzea, beka eskaerarekin lotuta. Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria 2016/679 (EB) Erregelamenduaren, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO), 6.1. e) artikulua da: tratamendua beharrezkoa da interes publikoko helburua betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emaniko botere publikoak gauzatzeko, oinarri harturik 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen, eta 39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Ez da aurreikusten datuak hirugarren batzuei lagatzea, legezko obligaziorik izan ezean, ez eta datuen nazioarteko transferentziak egitea ere. Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak beharrezkoa den denboran gordeko dira, alegia, datu horiek jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuak tratatzetik etor litezkeen balizko erantzukizunak zehazteko beharrezkoa den denboran. Artxiboen eta dokumentazioaren araudian ezarritakoa aplikatuko da. Eragindako pertsonak eskubidea dute datuetara sarbidea izateko, datuak zuzentzeko eta ezabatzen, eta, era berean, datuak babesteko indarreko araudian ezarritako beste eskubide batzuk ere badituzte, eta dagokionean eskubide horiek gauza ditzakete. Horretarako, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzura jo behar dute (Ijentea kalea, 1, 20003, Donostia).